

argazkigintza > argi-ITZALAK

Urrutiko keinuen bila


Javier Fernandez Ferrerak bidaietako argazkiak atsegin ditu gehien, eta bidaiak bakoitzean, erretratuak bilatzen ditu.

JON ORDOÑEZ

Uurtean behin bidaiak egiten du Javier Fernandez Ferrerak. Bidaiak asko atsegin ditu, oso gustuko ditu. Haren arabera, oso garatuta ez dauden herrietan jendeak ez die argazkiei hemen bezainbeste eragozpen jartzen, eta bera erretratuzalea denez, atzerri-joaten da. «Osagai humanoak zoratzen nau, eta kanpoan erraza-

goa da argazkiak ateratzea. Sinpleagoa da».

Gaztea zenean hasi zen argazkiak ateratzen Fernandez Ferreras, eta autodidakta da. Bi ikastaro egin dituela aitortzen du, baina Jose Maria Melladorekin egindakoa oso baliagarria izan zuen moduan, Humberto Rivasekin egindakoari ezin zaiola ikastaro deitu uste du; zer ikusten zuten bakarrik galdetzen zien. Argazki asko ikusiz ikasi du argazkilaritza berak. «Hori da ikasbiderik onena». Alde teknikoak jorratu zue- nean, ordea, argazkiak errebelatzerakoan, eman zuen jautzia. «Laborategian bihurtzen zara prozesu guztiaren jabe». 1985ean hasi zen bere argazkiak errebelatzen. Bere kabuz hasi zen, besteei galdetuz.



Indian gizon bati ateratako argazkia: *Moises*.



Espanian, Zamoran, prozesio bat: *Bercianos*.



Gambian arraina lehortzeko leku bateko argazkia: *Secadero de pescado*.

Garai batean argazki kamera analogikoa erabiltzen bazuen ere, digitala hartzen du orain. «Analogikoa oso ona zen, baina asko pisatzen zuen». Argazki kamera digitalaren arintasuna eskertzen du, baina datozen bidaietan pisu handiago hartu beharko duela dio; izan ere, zenbaitetan behar zuen materiala eskura ez izateagatik argazkiren bat edo beste atera gabe geratu da, eta ez du berriz ere gertatzerik nahi argazkilari barakaldarrak.

■ nortasun aqiria

- **Izena:** Javier Fernandez Ferreras.
- **Jaio:** 1952an, Lanusen (Argentina). Barakaldon bizi da.
- **Ogibidea:** Banketxe batean egiten du lan.
- **Argazkilaritza:** 14 urterekin hasi zen, bere kabuz. «Argazki kamera bat oparitu zidaten, eta harrezkero sendiko argazkilari izan naiz ni. Betidanik gustatu zait argazkilaritza». Autodidakta da, eta Nazioarteko Argazkilaritza Artearen Federazioaren Artista eta Bikaintasun tituluak ditu. Espainiako Argazkilaritza Konfederazioaren Artista titulua ere badu.
- **Sariak eta erakusketak:** 1985. urtean hasi zen bere argazkiak positibatzetan. Orduan hasi zen lehiaketetan parte hartzen, eta lehen sariak irabazten. 2005ean eta 2006ean, Argizaiola saria irabazi du. Belgikan, Luxenburgon eta Austrian ere FIAPeko urrezko domina irabazi du hainbat aldiz. Euskal Herrian Bilboko, Eibarko, Zumarragako, Bergarako, Leioako, Zumaiaiko, Beasaingo, Amurrioko, Gernikako eta Irungo lehiaketetan saritu dute, besteak beste.
- **www.federacionfotovasca.org**

Argazkilaritza digitala salbazioa izan da Fernandez Ferrerasentzat. Hark horrela esaten dio argazkiak ateratzeko modu horri. Ez du laborategian egotea gustuko. Bidaietaz gain, bodegoiak ere lantzen ditu. Estudioan lasai aritzea atsegin du; erlaxatu egiten da. Ideia bat hartu, horri bueltak eman... Bidaiatzen duenean ere nahiago du bakarrik egin, inoren konpainian baino gehiago. «Jende gehiagorekin joanez gero, errazagoa da arreta galteza. Gainera, ezin da pertsona bat zain eduki hiru, lau edo bost orduz. Beste argazkilari batekin bidaiatzea ere ez dut gustuko, argazkilaritza komunean izan arren, agian beste argazkilaritza mota bat gustatzen zaiolako». Bere hitzetan, bakarrik bidatzea

gorra da, baina emaitzak onak dira azkenean.

MONOKROMATIKOA. Bidaiak zalea izan arren, haren lanean paisaiak oso gutxi dira. Argazkilaritza monokromatikoa lantzen du, batez ere, eta horregatik ez die paisaiei arreta handia eskaintzen. Koloreetako argazkiak aurkitzen lanak izan ditu. Argazkiak zeri atera erabakitze-ko, atera nahi duen horrek hunkitu behar du, eta bistan da pertsonen hunkitzen dutela bera. Euskal Herri-ko urrun aurkitzen du atera nahi duen hori.

«Argazkilaritza oso gauza garrantzitsua da nire bizitzan. Ihes egiteko bide bat da. Zerbait oso indartsua. Egunen batean utzi beharko banu, ez dakit nola beteko nukeen utzitako hutsunea».

HITZALDIA: "EUSKAL KULTURAREN AJEAK ETA LITERATURA"

MAIATZAK 10
19:30ean



JOSEBA ZULAIKA

EUSKALTZAINDIAREN
egoitzan (Bilboko Plaza Barrian)

«Yoyes da eredu nagusia gaurko abertzale ezkertiarrontzat»



Bilbo Zaharra
forum

Correo, P 48005 BILBAO Tfnoa: 94 415 82 92 Fax: 94 415 80 11
WWW.BILBOZAHARRA.COM / bilbozah@saconet.es